



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

donostia UP!
san sebastián

GARAPEN EKONOMIKOAREN ETA BERRIKUNTZAREN SUSTAPENA 2016
IMPULSO AL DESARROLLO ECONÓMICO Y LA INNOVACIÓN 2016
PROMOTION OF ECONOMIC DEVELOPMENT AND INNOVATION 2016

Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak Donostiako 800 lagunari itzultzeko aukera eskainiko die Tokiko Talentua Itzultzeko programaren bitartez

Donostiako Sustapenak Tokiko Talentua Itzultzeko ezarritako programaren helburua da arrazoi ezberdinak medio emigratu behar izan eta nazioartean aurkitzen diren profesional kualifikatuak hirira ekartzea. Donostiako Sustapenak UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzarekin batera egindako azterketaren arabera, Donostiako 800 bat unibertsitate-titulatu atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo aurkitzen dira, lanean, beka batekin edo ikasketak osatzen.

Horretarako, lanpostu ezberdinak sortuko dira hiriko enpresa eta erakunde ekarleetan, ezagutzarekin eta berrikuntzarekin loturiko proiektuetan. Kontratuak 35 urtetik beherakoentzat izango dira, gutxienez urtebetekoak, eta bakoitzak 52.000 €-ko diru-laguntza jasoko du.

Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko zinegotzia den **Ernesto Gascok** ondorengoa adierazi nahi izan zuen: “enpresa eta ikerketa-zentroek profesionalak ekartzea eta kontratatzea nahi dugu, sartutako zentroetan ikerketa- eta garapen-prozesuak zuzendu ditzaten”. **Halaber, honako hau gehitu zuen:** “kalitatezko enplegua eskaini behar da talentua modu eraginkorrean berreskuratu dadin eta komunitate osoa gehiago garatzen lagun dezan”.

Datuak eskuratzeko, Gipuzkoan helbideratutako ikasleei inkesta bidali zaie, UPV/EHUUn ikasketak amaitu dituztenei 2010 eta 2014 urte artean; zehazki, **13.203 pertsonari bidali zaie, eta horietatik 2.350ek inkesta beteta itzuli dute.** Era horretan, inkestaren bidez, ondorengo datuak eskuratu dira:



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

- **%9 atzerrian bizi da.**
- **%7 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi da.**

Datuen arabera, UPV/EHU*n* ikasketak amaitutako 800 bat donostiar Donostiatik kanpo bizi dira. Atzerrian daudenen artean:

- **%53 lanean ari da.**
- **%25a bekarekin dago.**
- **%13 ikasten ari da.**
- **%8 enplegu bila dabil.**

Txostenari erreparatuta, **atzerrian lanean dagoen %72ak itzuli nahiko luke**, eta itzultzea eragozten duten faktore nagusiak prestakuntzaren araberrako lan-aukerarik ez izatearen ingurukoak dira. Atzerrian beka batekin ikasten ari direnen artean gehiengoak ere (%87) itzuli nahiko luke, eta ez dira itzultzen lan-aukerarik ez izateagatik eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunengatik.

Tokiko Talentua Itzultzeko Planaren bitartez lanpostu kualifikatuak eskaintzea lortu da balio handiko enpresa eta ikerketa-zentroetan; hala nola, Polymat, Ceit edo Tecnun-en. Urte osoan zehar deialdia irekita egongo da era horretako kontratazioak egin nahi dituzten enpresentzat. Gainera, **eskaerak jasotzen eta aztertzen jarraitzen dugu**. Plana hirian talentua bultzatzeko strategiaren barnean kokatzen da. Modu horretan, lan egiten da unibertsitateekin, ikastetxeekin, lanbide-zentroekin, e.a., eta bekak eta pizgarriak eskaintzen dira tokiko talentuari eusteko eta kanpoko talentua erakartzeko.

Tokiko Talentua Itzultzeko programan kontratua lortzeko ondorengo baldintzak bete behar dira:

- 35 urtetik beherakoak izatea.
- Unibertsitateko Goi Mailako titulazioa izatea, Diplomatura edo Lizentziatura, edo Goi Mailako Lanbide Heziketa.
- Donostian jaio izatea edo hirian gutxienez bost urteko denboraldian erroldatuta egotea.
- Titulazio ofiziala eskuratzea Donostiako fakultateren batean.
- Atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizitzea 2015eko abenduaren 31n, eta, gutxienez, urtebeteko denboraldian etenik gabe.
- EAEn lanik ez egin izana 2015ean edo 2016an.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

- Enpresak edo I+G+B agenteak eskatutako profilerara egokitzea, proiektu berritzailearen garapenean parte hartzeko.

Kontratua gutxienez urtebetekoa izango da, %100eko lanaldiarekin, eta lan-harremana gutxienez beste urte batekoa izateko konpromisoa hartuko da. Langileak gutxienez 40.000 €-ko soldata gordina izango du. Lan-eskaintzak Donostiako Sustapenaren web orrialdean argitaratuko dira.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosanbastian.eus